

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Bizkaiko Jabetza Hiritarreko Ganbera
Ofizialaren ondasun eta eskubideen
kudeaketari buruzko fiskalizazioa, likidazio
prozesu barruan**

**Fiscalización de la gestión de los bienes y
derechos de la Cámara Oficial de la Propiedad
Urbana de Bizkaia dentro del proceso de
liquidación de la misma**

2006 - 2011





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA/ÍNDICE

0.	LABURTZAPENAK	5
I.	SARRERA	6
II.	GANBERA LIKIDATZEAREN KRONOLOGIA.....	8
III.	GANBERA LIKIDATZEAN EGINDAKO KUDEAKETEN DESKRIBAPENA.....	10
IV.	GANBERA LIKIDATZEAN EGINDAKO KUDEAKETARI BURUZKO ONDORIOAK	13
	ALEGAZIOAK	19
0.	ABREVIATURAS	41
I.	INTRODUCCIÓN	42
II.	CRONOLOGÍA DE LA LIQUIDACIÓN DE LA CÁMARA.....	44
III.	DESCRIPCIÓN DE LAS GESTIONES REALIZADAS EN LA LIQUIDACIÓN DE LA CÁMARA	46
IV.	CONCLUSIONES SOBRE LA GESTIÓN LLEVADA A CABO EN LA LIQUIDACIÓN DE LA CÁMARA.....	49
ANEXOS		
A.1	BALANCES Y CUENTAS DE RESULTADOS	55
A.2	PATRIMONIO DE LA CÁMARA A 31.03.2007	56
A.3	DESTINO DE LOS FONDOS DE LA CÁMARA EN EL PERIODO DE 21.02.2006 A 31.08.2010.....	58
A.4	INVERSIONES Y GASTOS EJECUTADOS SIN COMPETENCIA	58
A.5	GASTOS IRREGULARES	59
A.6	DETALLE DE PARTIDAS SIN IDENTIFICAR EN EL ACTA DE CONTROL FINANCIERO DE 10 DE FEBRERO DE 2011	61
	ALEGACIONES	63

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 15a

Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 2012





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURTZAPENAK

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

XG: xedapen gehigarria

XI: xedapen iragankorra

BGAE: Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

KEB: Kontrol Ekonomikoko Bulegoa

ED: Errege Dekretua

LED: Legegintzako Errege Dekretua

KE: Kontuen Epaitegia

HKEE: Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

AG: Auzitegi Gorena

EAEJAN: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia



I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatuta, Laneko Planean sartu du Bizkaiko Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialaren (Ganbera, aurrerantzean) 2006–2011 aldiko ondasun eta eskubideen kudeaketari buruzko fiskalizazioaren gauzatzea, Ganbera likidatzeko prozesuaren barruan.

8/1994 Errege Lege Dekretuak, 1994ko abuztuaren 5ekoak, Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialak kendu zituen Zuzenbide Publikoko Korporazio gisa, eta Jaurlaritzari eskumena eman zion ondarearen inbentarioa taxutzea arau zezan. Inbentario horretan bereizi behar ziren, alde batetik, nahitaezko kuotaren bidez sortutako sarrerak aplikatuzetik lortutako zatia; eta, bestetik, legezko betebeharretatik eratorriak ez diren beste sarrera batzuen bidez sortutako zatia. Horretarako arauak 2308/1994 Errege Dekretuan, 1994ko abenduaren 2koan, ezarri ziren.

Eusko Jaurlaritzak, EAEko ganberak bere tutoretzapean zituenez, 15/2006 Dekretua, 2006ko urtarrilaren 31koa, Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialetako langileen eta ondarearen erregimenari eta destinoari buruzkoa, onartu zuen. Dekretu horren 2. xedapen gehigarrian, ganberetako gobernu organoak deuseztatu ziren, eta haien zereginak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartu zituen bere gain, likidatzeko prozesuan. Dekretu horren xedea, ondarearen arloan, ondarea likidatzeko beharrezko jarduerak ezartzea zen (dekretuaren 1. artikuluan azaldu da), 8/1994 Legegintzako Errege Dekretua, 1994ko abuztuaren 5ekoa, aplikatuz. Aipatutako dekretuak, 4. artikuluan, nahitaezko kuotaren bitartez edo legezko betebeharretatik eratorritako beste jarduera batzuen bidez zuzenean edo zeharka sortutako ondasunak eta eskubideak zein ziren zehazteko eta horiek ez diren beste sarrera batzuei esker sortutako ondasunak eta eskubideak zein ziren ezartzeko irizpideak ezarri zituen. Bestalde, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, azken sarrera horien bidez sortutako ondare zatiari dagokionez, ondare horren erabilera baino ezin zen laga, eta horrek ez zuen ondarearen titulartasuna eskualdatzerik edo inolako eskubiderik sortzerik ekarriko, legez eraturako mozkin asmorik gabeko eta hiriko etxebizitzan jabeak eta erabiltzaileak defendatzea, sustatzea eta informatzea helburu nagusi zuten elkarteen alde.

15/2006 Dekretuaren aurka administrazioarekiko hiru auzi errekurtsu aurkeztu ziren. Bi errekurtsoren zati batzuk aintzat hartu ziren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEJAN), bere bi epaitan (114/2007 Epaia, 2007ko otsailaren 16koa; eta 613/2010 Epaia, 2010eko irailaren 16koa) dekretuko 4. artikuluko c) atala baliogabetu zuen, 2308/1994 Errege Dekretuan ezarritako zehaztapan irizpideen kontra egiten baitzuen. Hirugarren errekurtsuan dekretua baliogabe zedila edo, bestela, 4.d, 5.2.a eta 7. artikuluko eta 3. xedapen gehigarriko 1. zenbakia ken zitezela eskatu zen. Errekurtsu hori gaitzetsi zuen 2009ko urtarrilaren 14ko 20/2009 Epaia, eta kasazio errekurtsua jarri zen Auzitegi Goreneko Hirugarren Salan. Errekurtsu hura onartu zen 2009ko irailaren 7an, eta txosten hau egin den egunean epaia emateke dago.

174/2007 Dekretuak, 2007ko urriaren 16koak, bere artikuluko bakarrean, 15/2006 Dekretuko 4. artikuluko c) atala aldatu zuen, eta 2308/1994 Errege Dekretuan ezarritako irizpidearen arabera egokitu zuen, 114/2007 Epaia agindu bezala.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailak kanpo auditoreei eskatu zien azterketa bat egin zezatela, EAeko ganberak, 2006ko otsailaren 21ean, hasieran, eta 2007ko martxoaren 31n, gero, zuten ondarea zehazte aldera, 15/2006 Dekretuko 4., 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoa betez (Dekretu hori 174/2007 Dekretuak aldatu zuen).

Lan hori egin eta gero, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak, 2008ko maiatzaren 29ko aginduaren bidez, hiru lurralde historikoetako ganbera deuseztatuek 2007ko martxoaren 31n zituzten ondasunen, eskubideen eta betebeharren inbentarioa (kontabilitate balioan eta merkatuko balioan) onartu zuen. Gainera, agindu zuen Ondare eta Kontratazio zuzendariak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko ordezkari eskuordeek ondasun eta eskubideak behar bezala inskriba, titula eta sar zitzatela EAeko Administrazioaren alde, aurrez horietan eragina zuten zorrak eta betebeharrak baliogabetu eta gero.

Bizkaiko Hiri Lursailen Jabeen eta Erabiltzaileen Elkarteak agindu horren aurka errekurtsua aurkeztu zion, lehen auzialdian, sailburuari. Errekurtsu hura ez zen onartu eta, beraz, beste errekurtsu bat jarri zuen EAEJANKo Administrazioarekiko Auzietarako Salan, 2008ko urriaren 31n. EAEJANK errekurtsua gaitzetsi zuen 2010eko irailaren 16ko 615 epaian. Gero, kasazio errekurtsua jarri zuen Auzitegi Nagusian, eta izapideak egiteko onartu zen, 2011ko martxoaren 21ean. 2011ko ekainaren 13an kasazio errekurtsuaren aurka egiteko idazkia aurkeztu zuen EAeko Administrazioak.

Lanaren xedeak honako hauek izan dira:

- Ganberaren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak esleitzeko eta likidatzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta haren ordezkariak gauzatutako kudeaketa 15/2006 Dekretuan eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko maiatzaren 29ko aginduan ezarritako helburuekin bat datorrela egiaztatzea.
- Ganbera likidatzeko gauzatutako lanetan funts publikoen kudeaketari aplikagarri zaion lege araudia bete dela egiaztatzea.

Gure lana auditoreen laneko dokumentuak eta Ganberako fitxategietan zeuden dokumentu euskarriak aztertzea izan da.



II. GANBERA LIKIDATZEAREN KRONOLOGIA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak, 2006ko otsailaren 22ko aginduaren bidez, Sailaren ordezkari eskuordea izendatu zuen Ganberarako (eskuordea, aurrerantzean), ondarea likidatzeko eta langileak EAEko Administrazioan sartzeko beharrezko jarduerak egin zituzan, 15/2006 Dekretuan xedatutakoa betez. Horretarako, eskuordeak, 2006ko otsailaren 22an, Ganberako Gobernu Organoen eginkizunak bere gain hartu zituen. 2006ko abuztuaren 21ean, eskuordea Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde-eskuorde izendatu zuten.

2006ko martxoaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio zuzendariak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako iraungitako Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialen ondasunen eta eskubideen ondare inbentarioa egiteko eta haiek zehazteko prozedura hasteko Ebazpena eman zuen, eta inbentarioaren erreferentzia data 2006ko otsailaren 22a jarri zuen. Geroago, Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazioko zuzendariak, 2007ko maiatzaren 23ko ebazpenaren bidez, Ganberaren inbentarioaren data aldatu zuen; denbora erreferentzia zabaldu zuen, eta 2007ko martxoaren 31 jarri zuen. Aldaketa hori egiteko arrazoitzat jo zituen, besteak beste: eskatutako informazioa auditoreen esku jartzean izandako atzerapena, aztertu beharreko dokumentu gehiago izan zirela, eta inbentarioaren erreferentzia data inbentarioa onartu eta argitaratzeko unera hurbiltzea komeni zelako.

Ganberaren ondasun eta eskubideen inbentarioa egite aldera, kanpo auditoreek Finantza Egoeren 2006ko otsailaren 21era eta 2007ko martxoaren 31ra mugatutako azterketaren txosten bana egin zuten. 2007ko martxoaren 31ra mugatutako Finantza Egoeren azterketaren txostena 2007ko abenduaren 11n aurkeztu zen, eta oinarritzat hartu zuten kanpo auditoreek 2007ko abenduaren 14an emandako Ganberaren 2007ko martxoaren 31ko ondare zehaztua jasotzen zuen txostena egiteko (ikus A.2).

Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariak, 2009ko urtarrilaren 29an eta otsailaren 19an, eta Finantza zuzendariak, 2009ko apirilaren 8an, idazkiak bidali zizkieten eskuordeari, iraungitako Ganberaren bankuko kontuak itxi zituzan eta kontuetako funtsak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kontura intsulda zitezten eskatzeko. Idazkietan, horrez gain, auditoreen azken txostena egin zen egunetik bankuko kostuak itxi ziren egunera bitartean izandako mugimenduei buruzko kontabilitate dokumentu jakin batzuk igortzeko eskaera egin zioten.

2009ko apirilaren 22an, eskuordeak 2009ko apirilaren 8ko idazkiari erantzun zion. Erantzun horretan, eskatutakoa egitea ezinezkoa zela adierazi zuen, eta laster Ganberaren egoerari buruzko informazio xehakatu eta zehatzagoa bidaliko zuela esan zuen.

2009ko azaroaren 10eko aginduaren bidez, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioko sailburuak kargutik kendu zuen eskuordea.

2008, 2009 eta 2010eko ekitaldietako kontabilitaterik ez zegoela ikusita, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eskatuta, kontabilitate hori egiteko ardura eman zion kanpoko profesional bati. Eta, gero, Ganberan 2007ko martxoaren 31ko inbentarioa egin zen egunetik aurrera egindako transakzioak egiaztatzeko helburuarekin,



Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Ganberak 2010eko abuztuaren 31n zuen ondarrera mugatutako azterketa egiteko ardura eman zien kanpo auditoreei. Azterketa hori 2010eko abenduaren 20an eman zuten.

Aurreko txostenean azaleratutako gertakarien ondorioz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak finantza kontroleko akta egin zuen, 2011ko otsailaren 10ean. Akta hartan, egindako ordainketetan izandako irregulartasunak azaleratu ziren. Irregulartasun horien zenbatekoa, behin-behinean, 444.345 euro izan zitekeela kalkulatu zen (ikus A.3), eta, adierazitakoaren arabera, ez zegoen baliozko titulu juridikorik edo kontraprestaziorik; eta, batzuetan, ez zen ageri dirua nor jaso zuen ere. Irregulartasun horiek ondasun edo gauza publikoak hartzea izan zitezkeen (halako kasuak Kontuen Epaitegiaren Funtzionamenduari buruzko 7/1988 Legearen -1988ko apirilaren 5ekoa- 72. artikuluan jaso dira). Ustezko irregulartasun horien erantzule eskuordea eta Ganberako langile bat jo zituzten. 2011ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluak Ganberaren ondarea likidatzearen gaineko azterketa mugatuan ikusitako jarduerak eta gorabeherak EAEJANko Fiskaltzara eta Kontuen Epaitegira bidaltzea erabaki zuen. Finantza Kontroleko Aktan azaldutako gertaeren ondorioz, Justizia eta Herri Administrazio Sailak diziplina espedienteak egin zizkien eskuordeari eta Ganberak likidatze aldiaren kontratatutako langileetako bati. Espediente horiek behin-behinean eten ziren, gertaerak judizialki ebatzi arte.

2011ko apirilaren 27an, Kontuen Epaitegiko Judiziamendu Sekzioko idazkariak idazkia eta dokumentazio osagarria jaso zituela eta zegozkion atariko eginbideak hasi zirela jakinarazi zion Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari. 2011ko ekainaren 13an, Kontuen Epaitegiko kontseilariak auto bat eman zuen. Auto haren bitartez, jarduerak Judiziamendu Sekziora eramatea erabaki zen, Kontuen Epaitegiko Gobernu Kontseiluari proposa ziezaion eskuorde izapidegilearen izendapena.

2011ko maiatzaren 27an, Bizkaiko Probintzia Fiskaltzak Eusko Jaurlaritzari jakinarazi zion Ministerio Fiskalak 46/2011 zenbakidun salaketa aurkeztu zuela Bilboko Guardiako Epaitegian eskuordearen eta Ganberako langile baten aurka, ondasun publikoak ustez bidegabe erabili izateagatik. Bilboko Instrukzioko 1. zenbakiko Epaitegiari egokitu zitzaion gertakariak ezagutzea, eta epaitegi horrek eman zien hasiera aurretiazko eginbideei, 1558/2011 zenbakiarekin.



III. GANBERA LIKIDATZEAN EGINDAKO KUDEAKETEN DESKRIBAPENA

Eskuordeak Ganberako Gobernu Organoaren eginkizunak bere gain hartu zituenetik (2006ko otsailak 22), eragin ekonomikoa izan duten zenbait kudeaketa egin dira, eta guztiek ez dute loturarik izan likidatze prozesuarekin.

III.1 GANBERAKO LANGILEAK

15/2006 Dekretuko 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2002ko azaroaren 5ean Ganberako langile finko zirenak EAEko Administrazioako langile finko izatera pasatuko ziren, edo, bestela, zerbitzu emandako urte bakoitzeko 20 eguneko soldata jasotzea aukera zezaketen, kalte-ordain gisa; halako kasuetan, urtebete baino denbora aldi laburragoak hilabeteka zatituko ziren proportzionalki, 12 hileko soldata, gehienez. Dekretu horretako xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat, langileak, esleitutako lanpostura modu eraginkorrean sartu arte, Ganberan egin behar zituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, bere eskumenen esparruan, erabakiko zituen zerbitzuak eta eginkizunak. Bereziki, lankidetzan jardun behar zuen inbentarioa egiteko lanetan, bai eta likidatze prozesuan ere.

Ganberako langile batzuek etxebizitza bat erabiltzeko eskubidea zuten, eta horrek ur, argi eta mantentze-lanen gastuak barne hartzen zituen. Integratzeak ordainsariak beste ezer ez jasotzea sortzen du, EAEko Administrazio Orokorreko lan-legepeko kidegoaren indarrean den hitzarmenean xedatutakoaren arabera. Era berean, 2009ko apirilaren 22an, eskuordeak Finantza zuzendariari jakinarazi zion lan-harremanari loturiko etxebizitza eskubideak iraungi zirela, baina eskubide batzuk ez ziren guztiz ebatzita geratu, ez baitzituzten giltzak eman eta ez baitzuten etxebizitza utzi. 2011ko urriaren 6an, etxebizitza guztiak hutsik zeuden.

Likidatze prozesua hasi aurretik, 25 langilek lan egiten zuten Ganberan, guztira, eta horietatik 20 EAEko Administrazioa sartu ziren, 2004tik 2010era bitartean. Gainerako bost langileek Ganberak ordaindu beharreko kalte-ordaina jasotzea hautatu zuten. Integrazio prozesu horretan, Ganberak guztira 713.129 euro erabili ditu kalte-ordainak, atzeratutako soldatak, horiei dagokien Gizarte Segurantza eta bestelako gastuak ordaintzeko (ikus A.3). Gainera, Ganberako langile bat borondatezko lan utzialdian dago 2004ko azaroaren 8az geroztik, 10 urterako. Langile hori ez zen sartu langileei EAEko Administrazioan sartzeko eskubidea aitortu zien 2006ko uztailaren 20ko Ebazpenean.

2006ko ekainaren 1ean, eskuordeak administrari bat kontratatu zuen lanaldi osorako, lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin.

2007ko irailetik abendura bitartean, beste bost pertsona kontratatu ziren: hiru Etxebizitzako ordezkari lanak egiteko, bat mandatari lanak egiteko, eta bestea ez dakigu zer lan egiteko kontratatu zen.

Sei lagun horiek 364.995 euroko gastua eragin zuten aipatutako aldian, eta 2008ko abendua eta 2010eko urtarrila bitartean kaleratu ziren. Langile horietatik bostek kaleratzearen aurka errekurtsua jarri zuten Lan Arloko Epaitegian. Epaitegi horrek, 388/2009 Epaiaren bitartez, baliogabe jo zituen kaleratze haietatik bi, eta EAEko Administrazioa pertsona horiek berriz hartzera zigortu zuen. Bestalde, 194/2010 Epaiaren



bitartez, beste hiru kaleratze bidegabe zirela jo zuen, eta EAEko Administrazioari honako zigor hau ezarri zion: hiru langileak berriz har zitzala, edo zegokien kalte ordaina eman ziezaiela (27.956 euro, guztira). EAEko Administrazioak berriz hartu zituen langile horiek, mugagabeko lan kontratuarekin.

III.2 2006KO OTSAILAREN 22TIK 2010EKO ABUZTUAREN 31RA BITARTEAN EGINDAKO INBERTSIOEK ERAGINDAKO GASTUAK

Aldi horretan, Ganberaren berezko funtzionamendu gastuez gain, Bilbon Henao kaleko 9. zenbakian dagoen eraikina eraberritzeko obrak egin dira, eta altzariak ere erosi dira. Horietako batzuk gastu gisa erregistratu dira, guztira 1.815.584 euro (ikus A.4). Hona hemen xehetasunak:

	Euroak		
	2006-02-22tik 2007-03-31ra	2007-04-01etik 2010-08-31ra	GUZTIRA DENBORA ALDIA
Obrak	152.703	1.184.534	1.337.237
Altzariak eta tresnak	78.887	399.460	478.347
GUZTIRA	231.590	1.583.994	1.815.584

III.3 ANDER FILMA FINANTZATZEAREN AUKERATU LAGUNTZA ELKARTEAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA

2008ko maiatzaren 20an, eskuordeak, iraungitako Ganberaren ordezkari jardunez, hitzarmena sinatu zuen Aukeratu elkartearekin, *Ander* filma finantzatzeko. Aurrerakinak eman zitzaizkion elkarteari, aipatutako filmarekin bildutako diru kopuruaren arabera itzul zitzaizkion. 2007ko otsailaren 12an Aukeratu elkarteko idazkariak egindako ziurtagiriaren arabera, eskuordea elkarte horretako administratzaile ere izango zen.

2007ko irailaren 12an, elkarte hori Berdindu zerbitzua emateko administrazio kontratu bereziaren esleipendun izan zen. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak zuen zerbitzu horren gaineko ardura.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eskatuta, eskuordeak 2011ko otsailaren 14an egindako idazki batean aurkeztu zuen aurreratutako ordainketen eta itzultzeen zerrenda, eta, zerrenda horretan jasotakoaren arabera, hitzarmenaren ondorioz, Ganberaren funtsetatik 420.000 euro irten ziren, eta 89.688 euro sartu ziren, itzultzeen bitartez (ikus A.6).

Aipatutako idazkiarekin batera filmaren fitxa teknikoa ere bidali zen, eta fitxa horretan jaso zen ekoizle exekutiboa eta ekoizle exekutiboaren laguntzailea eskuordea eta eskuordeak 2006ko ekainaren 1ean kontratatutako langilea zirela. Filmaren gastuen laburpenean, ekoizpen exekutiboaren lanengatik eskuordeak 15.000 euro fakturatu zituela ageri da.

III.4 PENTSIOAK

Ganberako Gobernu Batzordeak biziarteko hiru pentsioren ordainketa onartu zuen 1982ko uztailaren 12an eta 1991ko uztailaren 18an. Konpromiso horiek 2002. urtean kanpora atera ziren, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak 2002ko ekainaren 13ko 46/2002 Ebazpenaren bitartez onartuta, eta funts bat eratu zen Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde (BGAE) batean. Kanpora ateratako funtsaren 2005eko abenduaren 31ko hornidura defizitari dagokio 2008ko maiatzaren 29ko aginduaren bidez onartutako ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioan jasotako 114.563 euroren hornidura.

Eskuordeak, 2006ko abuztuaren 4ko Ebazpenaren bitartez, konpromiso hori deuseztatzea erabaki zuen. Beraz, urteko ekarpenak bertan behera utzi zituen, eta ordura arte kanpora ateratako funtsa agortu arte emango ziren. BGAEk pentsioak ordaindu zituen, 2010eko azaroan funtsa agortu zen arte.

Zenbait pertsona onuradunek erreklamazioak egin zizkieten Justizia eta Gizarte Segurantza eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailei, bere garaian Ganberak bere gain hartutako betebeharrak Gobernuak bete zituzan eskatzeko. Pertsona horietako batek demanda idazkia aurkeztu zuen 2011ko maiatzaren 23an Bilboko Lan Arloko 8. zenbakiko Epaitegian. Demanda hori aipatutako epaitegiaren 2011ko azaroaren 3ko 459/11 Epaia bitartez atzera bota zen, eta epai horren kontra erregutze errekurtsoa jar daiteke Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan arloko Salan.

III.5 HIGIEZINAK, FIDANTZAK ETA DIRUZAINNTZA ESKUALDATZEA

2008ko uztailaren 3an, EAEko Administrazioaren izenean inskribatu ziren, inolako kargarik gabe, Bilboko Henao kaleko 9. zenbakiko eraikina, eta Barakaldoko Iparragirre kaleko 11. zenbakiko ezkerreko eta Getxoko Paulino Mendibil kaleko 3. zenbakiko lokalak.

Hiri errentamenduen kontratu etako fidantzei zegokien kontu korrontea EAEko Administrazioaren izenean jarri zen 2009ko irailaren 30ean. Egun horretan, 208.599 euroren funtsa zuen.

Ganberaren kontu korrontetako funtsak EAEko Administrazioaren kontuetara intsuldatu ziren 2009ko abenduaren 29an; 2.252.137 euro, hain zuzen (ikus A.3).



IV. GANBERA LIKIDATZEAN EGINDAKO KUDEAKETARI BURUZKO ONDORIOAK

IV.1 LANGILEAK

1. Eskuordeak 6 langile kontratatu zituen, eta kontratazio horiek egitean ez zen bete Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 10.2. artikuluari lotuta 10.1.a) artikuluan xedatutakoa. Artikulu horretan, hain zuzen ere, ezarri da sail bakoitzari dagokiola aldi baterako lan kontratudun langileak kontratatzea, eta saileko organoek gauzatuko dutela, horretarako haien egitura organikoari buruzko dekretuan ezarritako banaketaren arabera, eta arauz ezarriko diren prozedurazko arauak betez. 373/2005 Dekretuan, 2005eko azaroaren 15ekoan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zen eta, dekretu horretan xedatutakoaren arabera, eskuordeak ez zuen kontratazio horiek egiteko eskumenik. Gainera, kontratazio horiek iruzurrezkoak zirela jo zen langileek kaleratzeen kontra ezarritako errekurtsioak ebazteko epaietan, ez zegoelako kontratazioa aldi baterakoa izatea justifikatzeko arrazoirik: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren jarduera berezko eta iraunkorraren arabera izan baitzen kontratazioa. Gainera, langile horiek egin beharreko eginkizunek ez zuten zerikusirik ganbera deuseztatzeko eta likidatzeko prozesuarekin.
2. Kontratazio horiek zuzenean egin ziren, publizitaterik eta inolako hautaketa prozesurik gabe. Gainera, ez ziren bete berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, eta ez zen langile gehiago behar dela adierazi behar zuen giza baliabideen faltari buruzko txostenik egin alde zuzenetik. Horrez gain, ez zen bete Gobernu Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzkoa.
3. Ez dago agiri bidezko euskarririk Gobernuak erabakitako aukera justifikatzen duenik; alegia, eskuordeak kontrataturiko hiru langileak mugagabeko lan kontratudun langile gisa kontratatzea (langile horiek, gero, beraien kaleratzearen aurkako errekurtsioa aurkeztu zuten, eta errekurtsioak bidegabe jo zituen Bilboko Lan Arloko 8. zenbakiko Epaitegiak; Administrazioak berriz hartu zituen langile horiek, hala erabaki zutelako, guztira 27.956 euroren kalte ordaina hartu ordez). Horrez gain, aintzat hartu behar zen kontratazio horiek zuzenean egin zirela, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete gabe.
4. EAEko Administrazioak, 2006ko uztailaren 20ko Ebazpenean, kontuan izan behar zuen 2014ko azaroaren 8ra arte borondatezko lan utzialdian dagoen pertsonak aldi hori bukatzean EAEko Administrazioan sartzeko eskubidea duela. Eskubide hori ezin du ukatu, baldin eta lanpostu hutsik badago.



IV.2 PENSIOEN KONPROMISOA IRAUNGITZEA

1. 2006ko abuztuaren 4ko ebazpena ez dago arrazoituta; ebazpen horren bitartez, eskuordeak pentsioen konpromisoa deuseztatu zuen eta, beraz, urteko ekarpenak bertan behera utzi zituen eta pentsioak ordu arte eraturako funtsa agortu arte baizik ez zirela emango erabaki zuen. Ebazpen hori ez dator bat Zuzenbidearekin, eskumenik ez zuen organoak eman baitzuen. Izan ere, eskuordeak Ganbera likidatzeko eskumenak baino ez zituen, eta eskumen horien barruan Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2008ko maiatzaren 29ko aginduaren bidez onartutako inbentarioan ezarritakoa gauzatzea baino ez zen sartzen. Agindu horretan sartu zen betebeharrak hori betetzeko hornidura. Konpromisoa deuseztatzeke ebazpena inbentarioa onartu aurretik eman zen arren, eta egun horretara arte, eskuordeak Ganbera mantentzeko eskumen arruntak baino ez zituen.
2. Deuseztatzeke ebazpenaren berri 2006ko abuztuaren 11n eman zitzaion Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuordeari, baina ez dago inon jasota Ogasun eta Herri Administrazio Sailak gai horren berri izan zuen ala ez. Izan ere, 2007ko martxoaren 31ra mugatutako azterketaren txostenean soilik adierazi zen egun hartara arte ez zirela aztertu azterlan aktuarialak, eta ez zela funtsaren zenbatekoa egokitu, ekarpen gehiago egitearen bitartez. Hala ere, 2010eko abuztuaren 31ra mugatutako azterketaren txostenean (2010eko abenduaren 20an egina) jaso ziren eskuordearen aipaturako 2006ko abuztuaren 4ko Ebazpena, konpromisoa iraungitza jo zuena, eta pertsona onuradunek egindako erreklamazioak. Ez dugu inon jasota ikusi EAeko Administrazio Orokorrak inolako jarduerarik egin zuenik pentsioen konpromisoa deuseztatzekeari lotuta, nahiz eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko maiatzaren 29ko aginduaren bitartez onartutako inbentarioan ordaintzeko betebeharrak jaso zen.

IV.3 2006KO OTSAILAREN 22TIK 2010EKO ABUZTUAREN 31RA BITARTEAN EGINDAKO GASTUAK ETA INBERTSIOAK

1. 15/2006 Dekretuaren xedea da Ganberen ondarea likidatzeko eta ondare hori EAeko Administrazioa sartzeko beharrezko jarduerak zehaztea (Ganberak 8/1994 Lege Errege Dekretuaren bitartez deuseztatu ziren). Ganbera likidatzeko jarduerak inbentarioa egitea, ondarea zehaztea eta ondare hori EAeko Administrazioaren alde erregistratzea izan behar ziren. Helburu horiek betetzeko beharrezko ziren gastuak bakarrik sortu behar ziren.

Eskuordeak prozesua bere gain hartu zuenetik gastu eta inbertsio asko egin dira, batez ere Bilboko Hena kaleko 9. zenbakian dagoen eraikineko zenbait pisu eta bulego birgaitzeko eta altzariz hornitzeko obrei loturikoak.

Kontabilitateko eta fakturetako kontzeptuak aztertzeke ondoriozta daiteke eskuordea izendatu zenetik egin diren inbertsioen eta gastuen zati handi bat (ikus A.4) ezin dela jo aipaturako dekretuan agindutakoa betetzeko beharrezkotzat ziren eta, beraz, eskuordeak, gastu eta inbertsio horiek baimentzean, bere izendapenaren barnean



zeuden eginkizunetatik harago zeudenak ere egin zituen, eta bere eskumenetatik harago zeuden gastuak egin zituen, 2.151.857 eurokoak (ikus A.4). Horrenbestez, diziplina espedientea egin beharko zatekeen horien gainean.

2. Ganberaren eraikinean egindako birgaitze obrak (oraindik ez zegoen erabakita zertarako erabiliko zen etorkizunean) eta altzarien erosketak administrazio publikoei aplikagarri zaien kontratazio araudian xedatutako legezko prozeduretatik at kontratatu ziren.
3. Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Finantza Kontroleko Aktan, 2011ko otsailaren 10ekoan, kanpo auditoreen txostenean azaldutako gorabeherak jaso dira; hain zuzen, hartzailea ageri ez den 332.826 euroren ordainketetan azaldutakoak (ikus A.6), eta beste ordainketa batzuetakoak (ordainketa horietan, hartzailea ezaguna zen, baina ordainketak ez zeuden arrazoituta; zehazki, 106.653 euroren ordainketa egin zitzaion Ganberako langile bati, eta 4.866 euroren ordainketa egin zen zaharberritze lan batengatik, eta ez dago fakturarik). 2011ko apirilaren 27an, Kontuen Epaitegiak gertakari horiei zegozkien atariko eginbide egokiak hasi zituen (gertakari horietatik kontabilitateko erantzukizunak sor litezke). Gainera, Ministerio Fiskalak salaketa jarri zuen eskuordearen eta Ganberako langile baten aurka, ondasun publikoak ustez bidegabe erabili izanagatik.
4. Lehendik dauden fakturak aztertzean, 34.681 euroren gastuak aurkitu dira (ikus A.5) eta, gure iritziz, ez zaizkio Ganberari egozgarri eta, era berean, kontabilitateko erantzukizunen bat eragin dezakete, ondasun edo eragin publikoak tartean daudelako, Kontuen Epaitegiaren Funtzionamenduari buruzko 7/1988 Legeko (1988ko apirilaren 5ekoa) 72. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurreko zifrari 28.722 euroren zenbatekoa gehitu behar zaio (ikus A.4), Henao kaleko 9. zenbakiko pisuetako baterako altzariak erosteko erabili zena. Altzari horiek, baina, ez zeuden etxebizitza horretan, 2011ko urriaren 6an.2007ko martxoaren 31z geroztik ez da egin aldi horretan egindako inbertsioak eta lehendik zeuden elementuak dauden ala ez egiaztatzea ahalbidetuko lukeen inbentariarik.

IV.4 ANDER FILMA FINANTZATZEKO AUKERATU ELKARTEAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA

1. Hitzarmena sinatzea ez dator bat 15/2006 Dekretuaren helburuekin. Eskuordeak ez zuen eskumenik xede horretarako gasturik baimentzeko; ez Ganberaren ordezkari izanik, ez zelako Ganbera likidatzeko eragiketa, ez eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko kargudun izanik ere, ez zuelako gasturik baimentzeko eskumenik, 373/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera (2005eko azaroaren 15eko Dekretua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen). Gainera, gai horri uko egin behar zion, Aukeratu elkarteko administratzaile eta filmaren ekoizle exekutibo zelako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28.2 a) artikuluan xedatutakoarekin bat. Horrenbestez, aipatutako 28. artikuluko 5. atalean ezarritakoaren arabera, erantzukizunak sortuko lirateke, hala eginez gero.



2. Gainera, sinatutako hitzarmena ez da batere zehatza. Hitzarmenak bidea eman du diru laguntza bat izapidetzeko, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeko 48. artikuluan eta hurrengoetan jasotako arauak bete gabe. Hitzarmenean, aurreikusi zen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak diru laguntza bat esleituko zuela, eta, hain zuzen ere, diru laguntza hori eman zuen, 2008ko abenduaren 31n sinatutako beste lankidetzak hitzarmen baten bitartez. Hitzarmen horretan ezarritakoaren arabera, aipatutako sailak konpromisoa hartu zuen 60.000 euroren ekarpena egiteko, Aukeratu elkarteak *Ander* izeneko film luzea egin zezan, eta ez zen zalantzan jarri ere egin, beraz, ea Aukeratu zen film luzearen jabetza intelektualaren eskubideen titular ala ez. Horri lotuta, Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio zuzendariak ziurtagiri bat egin zuen 2011ko urriaren 11n, ikus-entzunezko lan horren gainean EAEko Administrazio Orokorrek jabetza intelektualaren inolako eskubideen titulartasunik ez duela adierazteko. Hitzarmen horren ondorioz, eskuordeak aurkeztutako ordainketen eta itzultzeen zerrendaren arabera, funtsetatik 330.312 euro garbi atera ziren (ikus A.6), eta horren xehetasunak norako ziren ez dakigun funtsen zati da, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren finantza kontroleko aktakoena (ikus IV.3.3).

IV.5 GANBERA LIKIDATZEKO PROZESUA KONTROLATZEAN EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRAK EGINDAKO JARDUERAK

EAEko Administrazio Orokorra zen Ganberak deuseztatzearen eta haietako ondarea EAEko Administrazioa sartzearen arduradun, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena zelako, Autonomia Estatutuko 10.21 artikuluan xedatutakoarekin bat. 15/2006 Dekretuan Ogasun eta Herri Administrazio Sailari esleitu zitzaion inbentarioa egiteko eta ondare osoaren erregistroa izateko eginkizuna; eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, likidatze prozesuan Ganberako gobernu lanak egiteko. Era berean, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak zituen EAEko Administrazioaren ondarearen gaineko eta barneko kontrol ekonomikoa egiteko eskumenak.

Ganberaren kontuen 2007ko martxoaren 31ra mugatutako azterketaren txostena egiteko ardurak Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eman zien kanpo auditoreei, eta 2007ko abenduan egin zuten. Txosten horretan, auditoreek ohartarazi zuten Ganberaren egoitza birmoldatzeko obrak egiten ari zirela, eta zalantzan jarri zuten ea eraberritze lan horiek legezkoak ote ziren ala ez.

2009ko urtarrilaren 29an, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak -Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariak, zehazki- likidazioari zegozkion izapideen berri emateko eskatu zion eskuordeari. 2009ko otsailaren 19an eta apirilaren 8an berriz egin zitzaion eskaera hori. Azken eskaera Finantza zuzendariak egin zion, eta eskuordeak erantzun zion informazio zehaztua bidaliko ziola, laster. Ez dugu inon jasota ikusi eskuordeak informazio hori bidali zuenik.

Gero, eta 2008, 2009 eta 2010eko ekitaldietako kontabilitatea egitea agindu ondoren, Ekonomia eta Ogasun Sailak Ganberaren 2010eko abuztuaren 31ko finantza egoeren azterketa mugatua egin zedin onartu zuen. Azterketa hori 2010eko urtarrilaren 26an onartutako 2010erako Kontu-ikuskapenen Planaren barruan sartu zen.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariak 2010eko abenduaren 20an jaso zuen azterketa mugatuaren txostena, eta finantza kontroleko akta eman zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrari kalteak egin zitzaizkiola eta (ikus IV.3.3).

Gure iritziz, azterketa mugatuaren emaitzak ikusita, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2008ko maiatzaren 29ko agindua (inbentarioa onartzen eta likidatzeko agindua ematen duena, aginduan bertan ezarritakoaren arabera) zenbateraino bete zen ikusteko azterlana egin behar zen.

Bestalde, Ganberaren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak esleitzeko eta likidatzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere ordezkariak gauzatutako kudeaketa ez da bat etorri 15/2006 Dekretuan eta Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren aipatutako 2008ko maiatzaren 29ko aginduan ezarritako helburuekin.

IV.6 GANBERA LIKIDATZEAN EGINDAKO KUDEAKETARI BURUZKO ONDORIO OROKORRAK

Likidatze prozesuan egindako Ganberaren kudeaketa 2010eko abuztuaren 31ra mugatutako azterketaren txostenean jasota zegoen. Txosten horretan, auditoreen lana huts askok eta larriek mugatu zuten, eta huts horiek eragina izan zuten haien lanean. Orobat, huts horien ondorioz, ezin izan zuten baliozko ondoriorik atera Ganberaren ondare egoerari eta ondareko eragiketen emaitzei buruz. Eskuragarri zeuden kontabilitateko datuek eta dokumentuek ez zituzten betetzen edozein administrazio eta kontabilitate sistemari eskagarri zaizkion gutxieneko baldintzak, ez zen kontabilitate ordenatua eta egindako jarduerari egokitu, ez zuen aukerarik ematen egindako eragiketa guztien jarraipen kronologikoa egiteko eta ezinezko zen aldi behin inbentarioak eta balantzeak egitea ere. Ez dago 2007ko ekitaldiko kontabilitateari buruzko libururik (Ganberaren berezko bitartekoen bidez egin zen), eta 2008, 2009 eta 2010eko ekitaldietako kontabilitatea kanpoko profesional batek egin zuen 2010. urtean.

Ganbera likidatzeko, hertsiki, Ganberak 2006ko otsailaren 21ean zituen konpromiso guztiak betez eta likidatzeko beharrezko ziren gastuak eginez, 1.715.274 euro ordaindu beharko ziren. Hala ere, likidatze prozesuan, 2010eko abuztuaren 31ra arte, 4.374.879 euro gastatu dira (ikus A.3). Beraz, 2.659.605 euroko gehiegizko gastua egin da. Hona hemen xehetasunak:

	Euroak
	Zenbatekoa
Likidatze aldi kontrataturiko 6 pertsonen gastuak.....	364.995
Eraikina eta altzariak berritzeak eragindako gastuak.....	1.786.862
Arrazoitu gabe funtsetatik ateratako zenbatekoa (Finantza Kontroleko Akta) (ikus A.6).....	444.345
Ganberari egozgarri ez zaizkion gastuak eta falta diren altzariak	63.403
GUZTIRA	2.659.605



Eraikina eta altzariak berritzeko gastuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ondasun guztien titular den Kontratazio Batzorde Nagusiak eraikina zertarako erabili nahi duen jakin gabe egin dira.

Hain zuzen ere, txostena egin den egunean, Gobernuak Bilboko Henao kaleko 9. zenbakian dagoen eraikina enkantean ateratzea aurreikusi du. Hortaz, bulegoak birgaitzeko egindako gastuak ondare galera izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarako.



ALEGAZIOAK, BIZKAIKO HIRI JABETZAKO GANBERA OFIZIALAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN KUDEAKETAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZ HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK EGINDAKO TXOSTENeko ONDORIOEI EGINAK.

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILEKO SAILBURU OHIAK EGINDAKO ALEGAZIOAK

AURRETIKOA.- Gaiari sartu aurretik, irimotasun osoz adierazi nahi dut behin-behineko txostena hedabideren batera filtratu izanak haserrea eragin didala. Onartezina da txosten hori hedabideetara pasatu izana baina, gainera, txostena nik ondorioen edukia berri jaso BAINO LEHEN agertu da hedabideetan.

Egoera irregular horren ondorioz, babesgabetasun egoeran izan naiz bai jendaurrean bai hedabideetan (ez nuen Epaitegi horren txostenaren edukia ezagutzen, prentsan agertu zenean) baina, horrez gain, larri hondatu dira nire izen ona eta ohorea.

Epaitegiak berak ere, pentsatzen dut, jakin nahiko du filtrazioa nork egin duen, hain zuzen ere egitez hautsi baita Idazkaritza Nagusiak sinatutako eskutitzean erakundeak berak eskatzen zuen isilpekotasuna.

LEHENA.- Epaitegiaren jarraibideak betez, alegazioak egingo dizkiet txostenaren ondorioei. Txosten horretan, bi aipamen baino ez zaizkio egin garai hartan nire titulartasunpekoa zen sailari, hau da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari. Beraz, egingo ditudan alegazioak bi ondorio horiei buruzkoak baino ez dira izango.

BIGARRENA.- IV.4. ondorioa, *Ander* filma finantzatzeko Aukeratu elkartearekin egindako hitzarmenari buruzkoa.¹

Epaitegiak gaitzetsi duena da, bakar-bakarrik, bere iritziz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ziurtatu behar zuela Aukeratu elkarte zela film luzearen jabetza intelektualaren eskubideen titularra. Horri buruz, honako hau adierazten dut:

1. Gobernu Kontseiluaren erabakiz eman zitzaion Aukeratu elkarteari 60.000 euroren diru laguntza, eta Gobernu hura osatzen zuten sail guztiak zeuden Kontseilu horretan.
2. Gobernu Kontseiluaren erabaki hori lege eta ekonomia txosten egokiak aintzat hartuta onartu zen.
3. 60.000 euroak hainbaten artean jarri ziren, besteak beste, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, beste administrazio publiko batzuek -foru administrazioek, zehazki- eta ETB erakunde publikoak. Alegia, diru ekarpena baino ez zen egin.
4. Aukeratu Berdinu zerbitzua kudeatzeko ardura du, zerbitzu hori lehiaketa publiko bidez esleitu eta gero egindako kontratuaren arabera.
5. *Ander* proiektua Berdinuren 2008rako Laneko Planaren barruan dago.

¹ Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean ez da inon ere zalantza jarri Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emandako diru-laguntza.



6. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ez du ez filma ekoizteko ez banatzeko ardurarik izan. Diru ekarpena baino ez du egin, beste administrazio batzuekin batera, proiektua bideragarri izan dadin.
7. Lankidetzeta hitzarmenaren xedea ez da filmaren gaineko eskubideak lagatzea. Beraz, hitzarmen horren edukia ikusita, EAEko Administrazio Orokorreko zerbitzu juridiko eta ekonomikoek joko zuten ez zela beharrezko ikus-entzunezko lan horren jabetza intelektuala eskatzerik. Beharrezko jo izan balute, Sailak eskatuko zukeen.

HIRUGARRENA.- IV.5. ondorioa, Ganbera likidatzeko prozesua kontrolatzeko EAEko Administrazio Orokorrak egindako jardueri buruzkoa.

Epaitegiak honako hau ondorioztatu zuen azken paragrafoan: «... Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak (...) gauzatutako kudeaketa ez da bat etorri 15/2006 Dekretuan eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren aipatutako 2008ko maiatzaren 29ko Aginduan ezarritako helburuekin».

Nire iritziz, hain adierazpen orokorra eginda -inolako zehaztasunik eta benetako daturik gabe- ezinezko da horri buruz inolako alegaziorik egiterik. Bestela esanda, ezin zaio paragrafo bati amaiera eman hain gaitzespen zehaztugabearekin, ez baitu aukerarik ematen horri erantzuteko.



OGASUN ETA FINANTZA SAILEKO KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EGINDAKO ALEGAZIOAK

II. ATALARI ETA IV.5 ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Gertakarien kronologiarekin batera, gauzatu diren baina islatuta ez dauden hainbat jarduera ere aipatu beharko lirateke, garrantzitsuak baitira Ganberaren likidazio-prozesua ulertzeko. Hona hemen:

- Ondare eta Kontratazioko zuzendariak, 2006/03/16ko Ebazpenaren bitartez, inbentarioa egiteko prozedura hasiko zela erabaki zuen.
 - 15/2006 Dekretuak agindu zizkion laguntza-zereginak betetz, Kontrol Ekonomiko Bulegoak berrikuste mugatuko txostenak egin zituen (horretarako kontratatutako bitartekoen bidez) hiru ganberen 2006ko otsailaren 21eko finantza-egoerei buruz. Horren helburua izan zen kontabilitate-datuaren zehaztasuna egiaztatzea 15/2006 Dekretua argitaratzeko egunean eta, halaber, beharrezko urratsa zen dekretu horrek aipatzen dituen ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa egin ahal izateko.
 - Iraungitako ganberetako ondarea likidatu eta bertako langileak autonomia-erkidegoko Administrazioan sartzeko beharrezko jarduerak ezarri zituen urtarrilaren 31ko 15/2006 Dekretuaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsua ipini zen (299/06 zenbakia) Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Horrek, 2007ko otsailaren 16an, 114/2007 zenbakidun epaia eman zuen, eta deuseztat jo zuen ganberen ondasun eta eskubideak zehazteko irizpideei buruzko 4. artikulua c) atala.
 - Aipatutako epaia gauzatzeko, beste modu batean idatzi behar izan zen 15/2006 Dekretuaren 4. artikulua eta, horretarako, beste dekretu hau egin zen: 174/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Hiri Jabegoaren Bazkude Ofizialetako langileen eta ondasunen erregimenari eta destinoari buruzko Dekretua aldatzeko dena (2007ko urriaren 30eko EHAAn argitaratu zen).
 - Aldi berean, ondasun, eskubide eta betebeharrak zehazteko irizpideak aldatu behar zirela jakin zenean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kontabilitate-informazioaren berrikustea eguneratu zuen, martxoaren 31ko datarekin, ganberen inbentarioa amaitzeko jarduerak aurreratzearen.
 - Horretarako, hiru ganberen berrikuste mugatuko txostenak egin zituen, 2007ko martxoaren 31ko data kontuan hartuta. Arabakoa 2007/10/22an egin zuen, Gipuzkoakoa 2007/10/26an eta Bizkaikoa 2007/12/11n.
- Txosten horiek erabili ziren oinarri gisa iraungitako ganberen ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa (2007ko martxoaren 31ko datan) egiteko, nahitaezko kuotaren kontura edo legezko beste obligazio batzuen kontura sortutako ondasun eta eskubideak, eta aurrekoen bestelako diru-sarrerekin sortutakoak zehaztuz. Hori dela eta, 1927ko maiatzaren 6ko Errege Lege Dekretuan indarrean sartu aurretik sortutako aktiboak, data horretatik 1989ko urtarrilaren 1era bitartean sortutakoak eta azken data horren ostean



sortutakoak aztertu behar izan ziren. Beraz, argi dago 2007ko abenduaren 14an egin zen txosten hori oso konplexua izan zela.

- Era berean, 2008ko otsailaren 22an, merkatuko balioaren arabera eguneratu ziren aurreko azterketako zenbatekoak.
- Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduaren bitartez (apirilaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen) jendaurrean erakutsi zen ganberen inbentarioa egiteko prozedura.
- Bizkaiko Hiri Finken Jabe eta Erabiltzaileen Elkartek alegazioak aurkeztu zituen 2008ko maiatzaren 6an.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Ondare eta Kontratazioko zuzendariak arrazoitutako erantzuna eman zuen 2008ko maiatzaren 28an.
- Ondoren, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2008/05/29ko Aginduaren bitartez, aipatutako inbentarioa onetsi zen. Bada, zehaztu egin zen Ondare eta Kontratazioko zuzendariak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ganberetan zituzten ordezkari eskuordetuek ondareak inskribatu, titulatu edo sartu behar zituztela, eragiten zizkieten zor edo betebeharrak kitatu ondoren, horrelakorik izanez gero.
- Bizkaiko Hiri Finken Jabe eta Erabiltzaileen Elkartek, 2008ko uztailaren 3an, berraztertze errekurtoa aurkeztu zuen Ogasun eta Herri Administrazio Sailean.
- Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2008ko uztailaren 30eko Aginduaren bitartez ebatzi zen errekurtoa, gaitzetsita.
- Aipatutako elkarte horrek, 2008ko urriaren 31n, berraztertze errekurtoa gaitzetsi izanaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtoa ipini zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian.
- 2008ko ekainaren 3tik (ondarearen ondasun, eskubide eta obligazioei buruzko inbentarioa eta ondare-mugaketa onartzeko den Agindua EHAAn argitaratu zenetik), Ogasun eta Herri Administrazio Sailak ondasun higiezinak inskribatzen ditu, alta ematen die inbentarioan, eta agindu horri buruzko berraztertze errekurtoetarako eta auzietarako erantzunak prestatzen ditu. Halaber, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak batzarrak eta elkarrizketak izaten ditu etengabe, kontuak ixteko eta saldoak intsuldatzeko, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko organo eskudunekin, eta azken horrek aipatu du hainbat eragozpen daudela aipatutakoa egiteko: epaien ondoriozko soldata eta kalte-ordainak ordaindu behar dira, higiezin gastuei dagozkien helbideratutako ordainketak daude, helbideratutako alokairu-errenten diru-sarrerak daude, Sailean ez dago iraungitako ganberen administrazio-jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko aurrekontu-zuzkidurarik (oraindik ez delako horien behin betiko likidazioa egin)...
- Denbora nahikoa igaro zen eta artean ez zen behin eta berriz egindako ahozko agindeien behar bezalako erantzunik jaso. Bada, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2008ko ekitaldiko likidazioa egiteko lanak hasi behar zirenez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariak, 2009/01/29an, idazki bat bidali zion Bizkaiko Ganberako ordezkariari



(2009/02/19ko beste idazki batean errepikatu eta argitu zena), honako izapide hauek egiteko eskatuz:

- * Iraungitako ganberaren izenean zeuden bankuko kontu guztiak ixtea.
- * Funtsak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari intsuldatzea.
- * Zenbait agiri (kobrantza eta ordainketen zerrendak, bankuko laburpenak, berdinkatzeak...) bidaltzea Kontrol Ekonomikoko Bulegora.

EAEko Administrazio Orokorrak Ganberaren likidazioaren kontrolean duen jardunari buruzkoa den IV.5 puntuko seigarren paragrafoari dagokionez, ez da ulertzen zergatik eskatu zaion administrazioari 2008ko maiatzaren 29ko Agindua betetzen den aztertzeke. Izan ere, agindu hori agindu betearazlea da eta berez agortzen da, eta ez du inolako segimendurik behar (ez du likidaziorik agintzen, HKEEk dioen bezala: aldiz, erregistroko zenbait inskribapen agintzen ditu eta inbentarioa onesten du). Beraz, ez dago arrazoizko loturarik arauan agindutakoaren eta HKEEren arabera Administrazioari eskatu beharko litzaiokeenaren artean. Gainera, Administrazioak prozesu osoari egin dion segimendua izan da, hain zuzen ere, Jabetzako Ganberaren likidazio-prozesua bete den aztertzeke aukera eman duena, eta horixe izan da, ziurrenik, HKEEk adierazi nahi izan duena. Aipatu beharra dago Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, 15/2006 Dekretuak Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko esleitu zizkion zereginak gauzatu, honako txosten hauek egin dituela:

- Bizkaiko Hiri Jabetzako Ganberaren 2006ko otsailaren 21eko finantza-egoeren berrikuste mugatuko txostena.
- Gipuzkoako Hiri Jabetzako Ganberaren 2006ko otsailaren 21eko finantza-egoeren berrikuste mugatuko txostena.

Arabako Hiri Jabetzako Ganberaren 2006ko otsailaren 21eko finantza-egoeren berrikuste mugatuko txostena.

- Bizkaiko Hiri Jabetzako Ganberaren 2007ko martxoaren 31ko finantza-egoeren berrikuste mugatuko txostena.
- Gipuzkoako Hiri Jabetzako Ganberaren 2007ko martxoaren 31ko finantza-egoeren berrikuste mugatuko txostena.
- Arabako Hiri Jabetzako Ganberaren 2007ko martxoaren 31ko finantza-egoeren berrikuste mugatuko txostena.
- Jabetzako Ganberaren ondare-mugaketari buruzko txostena, 2007ko martxoaren 31ri dagokionez.
- Arabako Hiri Jabetzako Ganberaren ondare-likidazioaren berrikuste mugatuko txostena, 2010eko abuztuaren 31ri dagokionez.
- Gipuzkoako Hiri Jabetzako Ganberaren ondare-likidazioaren berrikuste mugatuko txostena, 2010eko abuztuaren 31ri dagokionez.



- Bizkaiko Hiri Jabetzako Ganberaren ondare-likidazioaren berrikuste mugatuko txostena, 2010eko abuztuaren 31ri dagokionez.

Azken txosten hori egitean ikusi dira, hain zuzen ere, erantzukizuna eragin lezaketan irregulartasunak.

IV.2.1 ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Txostenean honakoa aipatu da *“la Resolución de extinción del compromiso se dictó con anterioridad a la aprobación del inventario, hasta esa fecha no ostentaba más competencia que las corrientes de mantenimiento de la Cámara.”* Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkari eskuordetuaren 2006ko abuztuaren 4ko Ebazpen horretan honakoa azaldu zen Hiri Jabetzako iraungitako Ganberaren inguruan: *“Ordezkari horrek, irekitako likidazio-prozesua amaitu bitartean, bere gain hartuko ditu iraungitako ganberaren atribuzioak. Horretarako hainbat neurri xedatu behar dira [...] abian den likidazio-prozesua behar bezala amaituko dela [...] bermatzeko. [...] Ganbera dagoeneko iraungi denez, konpromisoa amaitu behar da, baita soberan dagoen dirua likidatu, amaitu eta erreskatatzeko beharrezko eragiketak hasi ere”* (1. eranskina). Ebazpenaren testutik ez da ondorioztatzen ordezkariak Ganbera mantentzeko ohiko eskumenak bakarrik zituenik. Izan ere, halaxe jakinarazi zion Lan eta Gizarte Segurantza Sailari. Hasieran, Kolektiborako onetsitako berrorka-planean konprometitutako ekarpenak ez ordaintzeaz gain, ordezkaria saiatu zen Biharko, BGAEn emandako funtsak erreskatatzen, hiru pentsiodunak aintzat hartzeko. Hala ere, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak ez zuen horretarako baimenik eman, bere ustez enpresa batek kanpoko tresna baten bitartez (kasu honetan Biharko BGAE) pentsioen ondoriozko konpromisoak kanpora ateratzeak ezinezko egiten duelako zuzkidura horiek bazkide babesleari (Merkataritza Ganbera) atzera eramatea, eragindako pentsioak bermatzeko.

IV.2.2 ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Honakoa dago ezarrita IV.2.2. atalean: *“no nos consta ninguna actuación por parte de la Administración General de la CAE en relación a la supresión del compromiso de pensiones...”* Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkari eskuordetuaren 2006ko abuztuaren 4ko Ebazpena ikusita, Hiri Jabetzako iraungitako Ganberan ahozko hainbat harreman izan ziren aipatutako ordezkariarekin, dagoeneko Biharko BGAEn kanporatutako funtsak babesteko, eragindako pentsioak aintzat hartzeko. Bada, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak, 2006ko uztailearen 26an, jakinarazpen formala egin zion (2. eranskina) Biharko BGAEn, ezarritako prestazioen ordainketa egiten jarraitzeko eta dagoeneko ordaindutako funtsak atzera eramatea eragozteko. Halaber, Bizkaiko Jabetzako Ganberako kolektiboak galdetu zuenez, prestazioen ordainketari buruzko jakinarazpena bidali zuen Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzak (3. eranskina).

2011ko otsailaren 2an, Bizkaiko Hiri Jabetzako Ganberak sustatutako enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planaren likidazioa onetsi zen (Biharko BGAEn barruan), eta baja eman



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

zitzaion Euskadiko BGAEen erregistroan, azken errenta-ordainketa egin ostean. Ondoren, Ganberak bere garaian emandako funts guztiak iraungi ziren. (4. eranskina).

Azkenik, aipatu beharra dago Bilboko lan-arloko 8 zk.ko epaitegiak duela gutxi eman zuen 2011ko azaroaren 23ko 459/11 epaiak, eragindako Jabetzako Ganbaretako pentsiodun batek Eusko Jaurlaritzaren kontra eta Biharko BGAEren kontra ipinitako erreklamazioaren ondorioz (5. eranskina), honakoa ezarri zuela:

“Alderdi auzi-jartzailearen ordezkariak aldarrikatzen du Bizkaiko Hiri Jabetzako Ganberak hitzartuta zituen betebeharrak betetzeko beharra zuela, intsuldaketa eta eskualdatze guztiak aktiboa eta pasiboa hartzen duelako bere ondarea konfiguratzeko. Bada, interpretazio hori baztertu egin behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisprudentziako lege-doktrinak, 2008ko apirilaren 15eko epaian (salak beste epai batzuetan mantendu duena, esaterako 2006ko otsailaren 7ko eta ekainaren 6ko epaietan eta 2007ko urriaren 30eko epaian), argi esaten baitu Hiri Jabetzako Ganberen jarduera amaitu egin zela eta bertako langileen lan-harremanak iraungi egin zirela, eta ez zela jarduera garatzen jarraitu, helburu orokorretarako erabili zela ganberen ondarea. Beraz, argi ezeztatu da Langileen Estatutuko 44. artikuluko enpresaren ondorengotza, halaxe dagoela adierazita Biharko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak auzi-jartzaileari bidalitako jakinarazpenean. Eusko Jaurlaritzak jasotako jakinarazpenean, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak agindeia egin zion Biharko BGAEri dagozkion pentsioak Jabetza Ganberak emandako funtsen bitartez ordaintzen jarraitzeko, nahiz eta ordainketa amaituko den gaur egunera arte eratutako funtsak agortzen direnean. Bada, datuek diote Eusko Jaurlaritzak defendatutako erantzukizuna baztertu egin behar dela Langileen Estatutuko enpresaren ondorengotzarik ez badago, jurisprudentzia-irizpide bateratuaren arabera.”

IV.3.5 ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Txostenak dio ez dela egin antzinako elementuak eta aldi horretan egindako inbertsioak badirela justifikatzen duen inbentariarik. Egindako obren ondorioz jokatu da horrela, ikuskaritza-txostenean adierazi den bezala.

IV.4 ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Beste modu batean azaldu behar da 2. paragrafoa. Izan ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ekarpena diru-laguntza denez, ez dira titulartasun-gaiak zehaztu behar, titulartasuna ezin delako inola ere Administrazio emailearena izan, baizik eta laguntzaren onuradunarena.

IV.6 ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Honi dagokionez, aipatu beharra dago eraikinaren esleipen edo kudeaketa esleituta duen sailak zehaztu behar duela eraikinaren erabilera, betiere eraikinaren erabilera, administrazio, mantentze, zaintze eta konponketa bada kudeaketa hori, Eraikinaren kudeaketa Etxebizitza Sailak egin zuen 2011ko urrira arte, sail horrek eraikinean zituen bulegoak (2011ko udan Gran Via kaleko 85. zenbakira eraman ziren) eta Ganberako antzinako langileek okupatutako etxebizitzak (pixkanaka hustu ziren eta azkenak 2011n hustu ziren) barne. Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak erabakitzen du, batez ere besterentzen den kasuetan, higiezinaren erabilera, baina bakarrik ondare-ondasunak direnean eta erabilerarik aurreikusita ez daukatenean. Henao kaleko eraikinaren erabilerari buruzko erabakia hartu ahal izateko, guztiz hustu arte itxaron behar zen, zatika besterenduz gero (etxebizitza bakoitza bereizita eta, ondoren, hala balegokio, bulegoak), kaltegarriagoa izango litzatekeelako Administrazioarentzat, eraikinak zaharberritze-obra handiak behar dituelako.

Alegazio hauek egin diren egunean eraikina ez da salgai ipini oraindik, hainbat zailtasun eta desadostasun sortu direlako eskatu diren tasazio eta balorazioetan. Nolanahi ere, ematen du argi dagoela higiezinaren hasierako prezioa nabarmen txikiagoa izango dela higiezina EAEko Administrazioaren ondarean sartu zenean eman zitzaion balioarekin alderatuz. Higiezinaren merkatuak nabarmen egin du behera, eta horixe da arrazoi nagusia.

Horren guztiaren ondorioz, azken paragrafoa honela idazteko proposatu da:

Eraikina eta altzariak birgaitzeko gastuak aurreikustean ez da Bilboko Henao kaleko 9. zenbakiko eraikineko bulegoen (eta, hala badagokio, etxebizitzaren) etorkizuneko erabilerarik planifikatu. Eraikina enkantean ipintzeak argi uzten du Administrazioak epe labur batean erabili izan dituela egindako obrak.

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAREN GANBERAKO ESKUORDE OHIAK EGINDAKO ALEGAZIOAK

1. Txosteneko I. Sarrera atala dela eta, ez dago alegazio asko egiterik sarrera bati, hori jakina da. Hala ere, komeni da zehaztapenen bat egitea, alderdi batzuk hobeto uler daitezen, txosteneko hurrengo ataletan garrantzi handia izango baitute alderdi horiek. 2006ko urtarrilaren 31ko 15/2006 Dekretuak, 2. Xedapen Gehigarrian, ganberetako gobernu organoak deuseztatu zituen, eta haien zereginak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartu zituen bere gain, likidatzeko prozesuan. Ondoren, baina, ezarri da sail horrek ganbera bakoitzerako izendatuko dituen ordezkari eskuordeek hartuko dituztela beren gain zeregin horiek, eta hori bat dator 8/1994 Errege Lege Dekretuak, 1994ko abuztuaren 5ekoak, Xedapen Iragankor Bakarrean xedatutakoarekin. Errege Lege Dekretu horren bidez, Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialek eta beren Kontseilu Gorenak zuzenbide publikoko korporazio izateari utzi zioten, eta beren ondasunen araubidea eta erabilera arautu ziren. Errege Lege Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, administrazio publiko eskudunek ordezkari eskuorde bat izenda dezakete, eta hark izango du ondarea eta langileak erabiltzea, haiek kudeatzea eta administratzea eskatuko duten ekintza guztien gaineko ardura. Horrenbestez, badirudi argi dagoela ordezkari eskuordeek legitimitate osoa dutela ondarea eta langileak erabiltzeko, kudeatzeko eta administratzeko, likidatze prozesuak irauten duen bitartean. Eta horixe da, hain zuzen, 2006ko abuztuaren 5eko 15/2006 Dekretuak irekitako prozesuaren oinarritzko bigarren ildo nagusia. Alegia, ganberak ez dira desagertuko dekretua indarrean sartzen denean; dekretua indarrean sartzen denean, ganberak likidatzeko prozesua hasiko da, eta prozesu hori bukatzen denean bukatuko da. Eta, ordu arte, ganbera guztiek (erabateko existentzia duten pertsona juridikoak) dagozkien eskubideak eta betebeharrak izango dituzte. 2006ko abuztuaren 5eko 15/2006 Dekretuak berak zenbait zeregin -berariazkoak eta oso zehatzak- esleitzen dizkie ordezkari eskuordea ez den administrazioko beste organo batzuei, besteak beste: inbentarioa egitea, lanbide kategorien baliokideak ezartzea eta Funtzio Publikoaren zuzendariaren kargu utzitako beste batzuk. Ondarea eta langileak erabiltzeari, kudeatzeari eta administratzeari loturiko gainerako eginkizunak (eta betebeharrak) ordezkari eskuordearen berezkoak ziren. Eta likidatze prozesuak dirauen bitartean, Hiri Jabetzako Ganbera erakunde-pertsona juridikoa ez da desagertu, badago oraindik, eta ganberaren izaera ere ez da aldatu. Hau da, ganberak zuzenbide publikoko korporazio izateari utzi diote, 1994ko abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Dekretu Legea betez; eta, ondorioz, ganbera elkarte pribatu mota bat izango da, doktrinaz eta jurisprudentziaz beti ulertu izan den bezala. Eta horixe da, hain zuzen, begi bistatik kendu ezin dugun oinarritzko hirugarren alderdia. Eta horren arabera jokatu izan da beti hiru ganberetan. Erakundeen izaera pribatua, ordezkari eskuordeek ondasunak eta pertsonak erabiltzeko, kudeatzeko eta administratzeko eskuduntza osoa, 2006ko urtarrilaren 31ko 15/2006 Dekretuan zehaztutako salbuespenak salbuespen; likidatze



prozesua; eta aipatutako dekretua indarrean sartzen denean Ganbera automatikoki ez desagertzea edo iraungitzea.

2. Ganberaren likidazioaren kronologiari dagokionez (txosteneko II. atala), ganbera likidatzeko prozesuaren kronologiak, egiazki, bestelako datu, prozesu eta gertaera garrantzitsu asko ere ematen ditu, baina luzeegi joko luke horiek guztiak sartzeak, jakina. Esate baterako, langileak EAEko Administrazioan sartzeko edo haiei kalte ordaina emateko prozesua aurreikusi baino askoz konplexuagoa eta luzeagoa izan zen. Hainbat erreklamazio egin ziren administrazio bidean eta auzibidean eta, horren ondorioz, langileak EAEko Administrazioan sartzeari buruz Dekretuan jasotako xedapenak betetzeko ezarri ziren epeak hainbat urtez luzatu ziren. Eta prozesu hori amaitu gabe, ezin zen Ganbera guztiz azkendu. Enplegu-emaile batek alta eginda zuen oraindik Gizarte Segurantzari, eta arrazoi bat edo beste zela eta EAEko Administrazioan sartu ez ziren edo lan harremana bukatutzat jo eta zegokien kalte ordaina jaso zuten pertsonekin enplegu-emaileak zituen betebeharrak bete behar zituen. Behin-behineko txostenean adierazi zen Ogasun Sailak itxieraren erreferentzia atzeratu behar izan zuela. Hala ere, atzeratzeko arrazoia ez zen izan dokumentu gehiago jaso zirela, prozesu osoa atzeratu zela baino, bai Bizkaiko Ganberan, bai beste bietan. Hain zen atzerapen handia, ezen nik eskuorde kargua utzi nuenean prozesu bat ebazteke baitzegoen oraindik. Hori dela eta, Ogasun Sailarekin eta Etxebizitza Sailarekin bilera bana egin nuen eta jakinarazi nien, aurreikusitakoaren arabera, Bizkaiko Ganbera 2009ko abenduaren 31ren inguruan azkendu ahal izango zela. Azkentze horrek berekin ekarriko zuen Foru Ogasunean identifikazio fiskaleko kodea (IFK) baliogabetzea eta enplegu-emailearen baja egitea Gizarte Segurantzari, besteak beste. Kontuen likidazioa prestatzen ari zen pertsona kaleratu zen, aurrez jakinarazi gabe, goizetik gauera. Eta, horren ondorioz, likidazioa kanpoko bati agindu zitzaion. Kontabilitatea, baina, egon bazegoen, eta likidazioa egitea aurreikusita zegoen, jakina.
3. Ganbera likidatzean egindako kudeaketaren deskribapenari dagokionez (txosteneko III. atala), egiazki, likidatzeko kudeaketak kontzeptua zabalagoa da, osotasun bat da, eta honako hauek barnean hartzen ditu: batetik, ganberaren administrazioa eta kudeaketa, ganbera likidatzeko aldi (nire kasuan, denbora aldi luzea hartu zuen, 2006ko otsailaren 22tik 2009ko irailaren 25era); eta, bestetik, 15/2006 Dekretuan jasotako zehaztapen guztiak betetzea, berariaz beste organo batzuei (Funtzio Publikoaren Zuzendaritza; Ondare eta Kontratazioko Zuzendaritza) eskatu zaizkienak edo haiekin lankidetzan egin behar direnak izan ezik. Gogoan izan behar da, esate baterako, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere gain hartu zituen zerbitzuak eta zereginak abian jarri zirela, 15/2006 Dekretuan jasotako baldintzak betez. Zerbitzu horiek lanean jarraitu zuten ganberetako langileek egin zituzten, langileok Administrazioan sartu aurretik eta ondoren (langileak Administrazioan sartzeko prozesua aurreikusi baino askoz gehiago luzatu zen). Sailak bere gain hartu ez zituen zerbitzuak, baina, hasiera-hasieratik desagertu ziren, eta onartutako zerbitzuak egiten hasi ziren. Horretarako, aipatutako langileek lehendik zuten ezagutza baliatu zuten, eta, prestakuntza nahikoa ez bazuten, tresna eta gaitasun



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

berriak ikasi zituzten langileek. Eta hainbat aldiz aritu dira lankidetzan Lurralde Ordezkaritzetara atxikitako langileak, bai Bizkaian, bai beste bi lurralde ordezkaritzetan eta ganberetan.

4. Ganberako langileei dagokienez (txosteneko III.1. atala), atal horretan beste datu osagarri batzuk ere kontuan izatea komeniko litzateke. EAeko Administrazioa sartzearabaki zuten 20 langiletik 7 Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara atxiki zituen Funtzio Publikoak, eta lanpostu horietara sartu ziren, ordezkorik jarri gabe. Eta, hori guztia, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila edo ordezkaritza eskuordea aintzat hartu gabe. Kasu horietan guztietan, tartean ziren pertsonak urte askoko eskarmentua zuten, eta behar-beharrezkoak ziren hemen aztergai den aldi luzean- Ganberan egin beharreko lana egiteko. Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak berak adierazi zidan beraiek ez zituztela eskatu, ez zituztela behar eta, gainera, haietako lekuri ere ez zutela. Beste langile batek, eskarmentu handiena zutenetako batek, txandako lan kontratua aukeratu zuen, eta Ganberan zerbitzu egiteari utzi zion ia. Beste langile batek (abokatuak) denbora luzea zeraman bajaran eta, Auzibide Zuzendaritzako zerbitzu juridikoei aholkua eskatu eta gero, ikerketa abiaraztea erabaki zen. Horri esker, langile horren gaineko susmoak baieztatu ziren, alegia, iruzur egiten ari zela, eta, beraz, espedienteak egin zitzaion Gizarte Segurantzari. Ganberan, gainera, ia ez zegoen ezer informatizatuta, eta, hortaz, langileek ez zuten aplikazio informatikoen gaineko ezagutzarik. Hori dela eta, erabaki zen langileak, txandaka, Lurralde Ordezkaritzara joan zitezela, Administrazio Orokorrean hain beharrezko eta ohiko diren tresnak ezagut eta erabiltzen ikas zituzten. Bat-batean, beste kontu bat ere agertu zen: Etxebizitza Ministerioak etxebizitza alokatzeko gazteentzako laguntzen plana onartu zuen. Plan horrek «emantzipatzeko oinarritzako errenta» du izena, eta Etxebizitza Ministerioak finantzatzeko du, baina autonomia erkidegoek kudeatzen dute. Etxebizitza Sailak zerbitzu hori Ganberaren lokaletan (Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, hiruretan) egingo zela erabaki zuen, ez baitzegoen beste lekuri erabilgarri. Bizkaian, zehazki, espediente ugari zeuden, eskari asko izan zirelako. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hiru pertsona kontratatu zituen, baina Arabako eta Gipuzkoako ganberetan banatu ziren, askoz eskari txikiagoa zutelako. Gainera, Bizkaiko Ganberak Henao kaleko 9. zenbakian duen lokala berritzeko obrak guztiz beharrezkoak ziren (gero azalduko dugu sakonago), eta horien ondorioz behar berriak baina aldi baterakoak sortu ziren. Horren guztiaren ondorioz, baldin kudeaketa arduratsua egin nahi bazen, txostenean aipatutako aldi baterako kontratuak egin behar ziren. Kontratu horiek egiteko, lan poltsetan zeuden langileak, Etxebideko egokitu gabeko langileak edo Ordezkaritzarekin zerikusirik ez zuten beste hautaketa prozesu batzuetan aukeratutako pertsonak hartu ziren aintzat. Gobernua aldatu eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko zuzendaritza talde berria sartu zenean, pertsona horiek beharrezko zirela jo zen. Haiekin hitz egin zuten, eta adostu zuten kaleratzeak bidegabe eta baliogabe jo zituzten epaien kontra langileek ez zutela errekurtsorik jarriko, Eusko Jaurlaritzak ez zuela aurka egingo, eta berriz hartuko zirela langile horiek. Eta halaxe egin zen. Hala izan zela egiaztatzeke, aski da pertsona horiekin

edo langileria zerbitzuarekin hitz egitea. Niri ere deitu zidaten lan arloko epaitegietan egindako bista batzuetan lekuko joan nendin, eta halaxe jakinarazi zidaten Gobernuko zerbitzu juridikoek, zuzen-zuzenean. Kaleratzea baliogabea zela zioen epaia jaso zuen pertsonetako bati bere nagusiak (Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko gaur egungo taldekoa) eman zion albistea, bere lanpostuan zegoela, arratsaldez. Hurrengo egunean ez zedila lanera etor esan zion, kaleratu zutelako. Eta hori kaleratze baliogabe peto-petoa da, jakina. Nire ustez, beraz, kontratazioak behar-beharrezkoak izan ziren, azaldutako arrazoien bidez nahiko justifikatuta zeuden eta pertsona horiek langile finkoen lanpostura sartzeak ez zuen inolaz ere zerikusirik izan ordezkari eskuordearen edo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren kudeaketarekin. Ez du lekurik, beraz, gastu hori ez dagoela justifikatuta esateak, ez eta langile horiek berriz hartzearen kostua aurreko gobernu taldeari egozgarri zaiola adierazteak ere.

5. 2006ko otsailaren 22tik 2010eko abuztuaren 31ra bitartean egindako inbertsioek eragindako gastuei dagokienez (txosteneko III.2. atala), ordezkari eskuordeak, ia-ia hasieratik eta Bizkaiko Ganberaren errealitatea osorik aztertu eta analizatu eta gero, Ganberak Barakaldon eta Getxon zituen «ordezkaritzak» ixtea erabaki zuen, eta haietan lan egiten zuten langileak (langile gutxi) Ganberak Bilboko Henao kaleko 9. zenbakian zuen egoitza nagusira eramatea. Horri esker, funtzionamendu gastuak aurreztuko ziren. Lokal horren egoera ez zen ona, era guztietako huts asko zituen, eta, besteak beste, segurtasunari, arriskuei, eraikina husteari eta irisgarritasunari buruzko araudia urratzen zuen erabat. Hala ere, hasiera batean, likidazioa amaitzeko lau edo bost hil inguru beharko zirela aurreikusi zenez hasieran, zegoen bezala uztea erabaki nuen, eta arreta osoa jarri nuen egiten ziren zerbitzuak antolatzean, langileen integrazioan, kontuen egoeran eta bestelakoetan. Laster ohartu nintzen, baina, likidatze aldia hainbat urtez luze zitekeela. Beste eskuorde batzuk, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila eta Funtzio Publikoa ere jabetu ziren horretaz. Horixe jakinarazi zidaten, argi eta garbi, Auzibide Zuzendaritzako abokatuek, lehen lan errekurtsua aurkeztu zenean. Abokatuek, antzeko kasuetan izandako esperientzia oinarri hartuta, adierazi zidaten bost urte inguruko denbora aldia behar izango nuela; eta, beraz, ezinezkoa zen Ganbera pertsona fisikoa azkentzea harik eta langile guztiekiko betebeharra, langile guztiak Administrazioa sartzeko edo kalte ordaina emateko prozesua bukatu arte. Argi eta garbi jaso da hori 15/2006 Dekretuan. Hori ikusita, Henao kaleko 6. zenbakiko lokala berritzea erabaki zen, indarrean den araudiaren eskakizun teknikoetara egokitzeko. Hori guztia oso ondo azaldu da obrei buruzko txosten teknikoan. Harrigarria da niri obra horiek egin izana aurpegiatzea, eta ez justu kontrakoa. Izan ere, obrarik ez egitea arduragabekeria handia izango zen, egunero 20 lagunek baino gehiagok lan egiten zuten eta egunero hainbat zerbitzutara arreta eske joaten ziren ehunka pertsona hartzen zituen lokala oso arriskutsua izango baitzen. Hortaz, atal horretako gastua guztiz justifikatuta dago. Lokal hori zegoen bezala utzi eta bertan zerbitzu egiten jarraitu izan balitz, horrek bai, horrek zigorra mereziko zukeen, edo kautelaz ixtea. Higiezin hori kultura intereseko eraikin izendatu zutenez, eta Zabalguneke lehen eraikin pribatua izanik, obra ezin zen

edonola egin. Hortaz, lanak kontu handiagoz, epe luzeagoan eta gastu handiagoa eginez gauzatu behar izan ziren, eta azken emaitza, nire ustez, goraiatzeko modukoa izan da; eta goraiatu ere goraiatu da. Obra horiei buruzko txosten osoa dago, eta hari lotzen natzaio. Txostena Ogasun Sailean dago berritze lana inauguratu zenez geroztik, eta nik berriz bidali nion gaur egungo Ogasun Sailari.

6. *Ander* filma finantzatzeko Aukeratu laguntza elkartearekin sinatutako hitzarmenari dagokionez (txosteneko III.3. atala): gayei, lesbianeiei, bisexualei eta transexualei arreta emateko Berdindu zerbitzua Gobernu Kontseiluaren erabakiz sortu zen, 2002ko urrian. Erabaki horren arabera, zerbitzu publiko hori sortzeaz gain, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eman zitzaion zerbitzua abian jartzeko eta funtzionarazteko beharrezko ekintza eta kudeaketa guztiak egiteko ardura. Diskriminatuta eta/edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako gizarte zerbitzu horrek bitarteko gutxirekin ekin zion lanari, baina aitzindari izan zen. Ia zazpi urteko ibilbidea egin du, eta lan handi eta bikaina egin du denbora horretan. Berdinduren hasierako bost urteetako lanari buruzko txosten berezia Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen, eta Legebiltzarreko talde guztiek zoriondu zuten zerbitzua. Berdinduren zerbitzua Bizkaiko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Lurralde Ordezkaritzan ematen da hasiera-hasieratik, eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzara atxikita dagoen arren, aipatutako sailak Bizkaiko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako eskuordeari eman zion zerbitzua bultzatzeko eta koordinatzeko ardura, Gizarte Ongizateko zuzendariarekin lankidetzan. Beste arlo batzuetan ere eskuordearen gain utzi ziren ardura batzuk, Izatezko Bikoteei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legea idaztea eta izapidetzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa, adibidez. Berdinduk sailari aurkeztu zizkion bere lan planak, eta hainbat epigrafe eta lan esparru sartu dira plan horietan. Horietako bat ikus-entzunezkoen ekoizpena da. Arlo hori oso garrantzitsutzat jo da, zinemak eta telebistak jendearengana iristeko gaitasun handia dutelako, eta gazteengana, bereziki. Testuinguru horretan egin zen *Ander* film luzea. Oso ondo hartu dute nazioartean; hain zuzen, mundu osoan 23 sari eskuratu ditu, eta euskaraz egindako film sarituena izango da, beharbada. Nazioartean filmari buruz egin diren kritikak ere oso onak izan dira, eta oso balioetsi dute lan hori, bai duen gizarte edukiarengatik, bai duen kalitate zinematografikoarengatik. *Ander* Eusko Jaurlaritzaren filma da eta, beraz, postprodukzioa bukatu bezain laster jatorrizko bi DVD bidali ziren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzara, eta Ogasun Sailera. Ekoizle exekutiboak finantzaketa lortzeko ardura izaten du, eta hain zuzen ere lan hori egin zuen eskuordeak: hiru foru aldundiek, EITBk eta beste batzuek lankidetzan eta babesa eman zezaten lortu. Eta lan horren truke eskuordeak ez du zentimo bat bera ere kobratu, nahiz eta, normalean, errealizazioko aurrekontu osoaren % 10 eta % 15 bitartean kobratu ohi den. Txostenean jaso zen eskuordeak 15.000 euro jaso zituela, baina eskuordeak ez zuen ezer kobratu, are gehiago: eskuordeak bere dirua jarri zuen. Izan ere, aurrez, 20.000 euroren aurrerakina eman zuen, eta zenbateko horretatik aipatutako 15.000 euroak berreskuratu zituen. Hala dago jasota Ogasun Sailera aurkeztu ziren



Ander filmaren kontuetan. Baldin filma behar bezala kudeatu izan balitz, inbertitutako zenbateko osoa berreskuratu ahal izango zen, agian; eta, beharbada, irabaziak ere lortu ahal izango ziren. Hala izan balitz, itzultzeen bitartez aurreratutako guztia egingo zen. Dena den, helburu nagusia gizarterako eta kulturarako onuragarri izatea zen. Filmak, baina, gastatutakoaren balioa lortu du, gutxienez. Lehen mailako ondarezko aktiboa da, titulartasun publikokoa, eta Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago.

7. Pentsioei dagokienez (txosteneko III.4. atala), atal horretan aipatutako pentsioei loturiko erabakia hartzeko, aurrez gaia sakon aztertu zen. Hainbat aholku eskaera eta bilera egin ziren, eta horiek guztiak jaso eta azaldu dira «txosten laburra, E.G.G-k egindako erreklamazioa dela eta» dokumentuan. Txosten hori Bizkaiko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Ordezkaritzaren Lurralde idazkariak idatzi zuen. Txostenean adierazitakoaren arabera, 2006ko abuztuaren 26an, Bizkaiko Ganberako ordezkari eskuordeak bukatutzat jo zuen Biharko enpresarekin hartutako zerbitzuak kanporatzeko konpromisoa; dena dela sortutako pentsioak ordainduko zirela bermatu zuen (orduan, 2010era arte kalkulatu ziren). Aparteko pentsioen jatorriak (hiru pertsonentzat) eta Ganberak halako pentsioak emateko gaitasuna zuela ikusteak pentsaraz zezakeen ez zela legezkoa, edo zalantzazkoa zen, gutxienez, Ganberak bere eskumen esparrutik kanpo ziharduelako. Izan ere, ganberak Eusko Jaurlaritzaren babespekoak dira; eta, gainera, ez zituen neurri bakar batekin neurtzen Ganberako gainerako langileak. Aurrez aholku eskaerak egin eta gero eta Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzako arduradunen onespenearekin hartu zen erabakia. Arduradun horiekin hainbat bilera egin ziren Ordezkaritzan, eta guztia Ganbera azkentzeari buruz Estatutuetako 11.e) artikuluan ezarritakoa betetzea oinarri hartuta egin zen. Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako arduradun ohiak ere onspena eman zuen. Ezarri zen demandak bi oinarri zituen: batetik, pentsioen biziarteko izaera, eta, bestetik, Ganberak hartutako konpromisoetan Eusko Jaurlaritzak egindako subrogazioa. Demanda hori ez zen onartu, txostenean adierazi bezala. Beraz, ez da beharrezko aipatzea Administrazioan sartu diren Ganberako langileek (enpresa ondorengotzaren printzipioa erabat ukatzen dute) egindako aldarrikapenak direla eta epai asko eman dela. Hartutako erabakia ez da hiru pentsioak ordaintzeari uko egitea; ekarpenak ez zirela denboran mugarik gabe egingo erabaki zen, eta pentsioak lehendik zegoen funtsa agortu arte ordainduko zirela. Eta hori bat dator funtsa arautzen duten klausuletan ezarritakoarekin.
8. Higiezinak, fidantzak eta diruzaintza eskualdatzeari dagokionez (txosteneko III.5. atala),
9. Langileen kudeaketari buruzko ondorioei dagokienez (txosteneko IV.1. atala), laugarren alegazioan adierazitakoari lotzen natzaio. Kontraturiko langileek hala izaten jarraitu behar dute Ganbera azkendu arte, eta likidatzeko prozesuaren barruan Ganbera administratzeko eta kudeatzeko ordezkari eskuordearen eskumenean esparruan, lehen aipatu bezala. Argi eta garbi arrazoituta dago hori: premia zegoen langile gehiago kontratatuzko, nahiko egon zitezenean, ezin baitziren inondik inora zerbitzuak eman zazpi langile Hezkuntzako Ordezkaritzara joan eta



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

gero eta gainerakoak lehen aipatutako inguruabarretan zeudelarik geratu zen langile kopuruarekin. Lehen adierazi bezala, kontraturiko pertsona guztiek hautaketa-prozesuak gainditu zituzten aurrez. Gogoan izan behar da Ganberak ez zituela denbora laburrean mantentze jarduera txikiak egin; garrantzi handiko zerbitzuak ematen jarraitu du, 15/2006 Dekretuan bertan jasotako zerbitzuak, eta zerbitzu batzuk gero eta eskari eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira. Izan ere, aipatutako dekretua indarrean sartu ondoren, zerbitzu horietara jotzen duen jendea ez dira lehengo Ganberako bazkideak bakarrik, Bizkaiko herritar guztiek dute horretarako aukera. Eta, gainera, guztiz doan ematen hasi dira. Bat etor naiteke atal honetako 3. puntuan adierazitakoarekin; hiru kaleratze bidegabeengatik kalte ordaina (27.956 euro, guztira) emateko aukera ziur asko merkeago izango zen langile horiek lan kontratu mugagabearekin kontratatzea baino. Baina aukera hori Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egin zuen, eta ez Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak. Bi erabaki hartu ziren: lehen auzialdiko epaiaren kontra errekurtsorik ez jartzea eta langile horiek berriz hartzea. Borondatezko lan utzialdian zegoen langileak lanbide profil desberdina zuen kontraturiko beste langile horien aldean (menpekoak, laguntzaileak edo administrariak), eta epaitegietara jo zuen, baina epaitegiak ez zuen onartu bere xedea.

10. Pentsioen konpromisoa iraungitzeari dagokionez (txosteneko IV.2. atala), zazpigarren alegazioan esandakoari lotzen natzaio. Eranstekoa da Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2008ko maiatzaren 29ko Aginduak ez duela Ganbera azkentzen, zenbait betebeharrak oraindik gauzatu gabe zeudelako (langileak EAEko Administrazioa sartzea, adibidez), eta horrek Ganbera azkentzea eragozten du. Beraz, likidatze aldia luzatu zen, eta, horren ondorioz, hiru ordezkari eskuordek lanean eta beren zereginak betetzen jarraitu behar zuten, 15/2006 Dekretuan 1994ko abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretuari lotuta xedatutakoaren arabera. Nik 2009. urte amaieran utzi nuen ordezkari eskuorde kargua eta, horren ondoren, gaur egungo Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde ordezkaria izendatu zen Ganberako ordezkari eskuorde. Beraz, horrek argi eta garbi erakusten du Ganbera oraindik ez dela azkendu. 2010eko urtarrilean, ordezkari eskuorde berriak Ganberako langile bat kaleratu zuen, baina kaleratzea baliogabea izan zen, kaleratu zutela jakinarazi baino lehen ez baitzion ezer jakinarazi, eta ez zen bete kaleratzeko bestelako legezko betebeharrak ere. Ez dirudi kudeaketa hori administraziokoa soil-soilik denik. Eta, nolana ere, 2006ko abuztuaren 4ko Ebazpena (zeinaren bitartez eskuordeak pentsioen konpromisoa amaitutzat jotzen baitu) Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren aipatutako 2008ko maiatzaren 29ko Agindua indarrean sartu baino askoz lehenagokoa da.
11. 2006ko otsailaren 22tik 2010eko abuztuaren 31ra bitartean egindako gastuei eta inbertsioei dagokienez (txosteneko IV.3. atala), aurreragoko alegazioetan adierazi dut 15/2006 Dekretuak (1994ko abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretuari lotua) ez dituela hiru ganberak azkentzen, atal honetako 1. puntuko bigarren lerroan adierazi denez. Errege Lege Dekretuak egiten duena zera da: hiru ganberei zuzenbide publikoko korporazio izaera kentzen die, testuan bertan jasotzen diren

zergatiak eta arrazoiketak direla eta. Zergati eta arrazoiketa horiek zerikusia dute higiezinaren jabetzari loturiko interes ez publikoen mota jakin bat defendatzearekin. Errege Lege Dekretu hori eman zenean, ganberak zuzenbide publikoko korporazio izateari utzi zioten (izaera hori ez dute betidanik izan ganberak, ganberen historiako aldi batean ezarri zitzaizen), eta nolabaiteko elkarte pribatu izatera pasatu ziren. Eta arlo horretan eskumena duten autonomia erkidegoek (EAE, besteak beste) bi aukera dituzte: korporazio horiek mantentzea, tutoretzapeko elkarte pribatu izaerarekin; ala azkentzea, langileak EAeko Administrazioan sartu eta ganberaren kontuak likidatu eta inbentarioa egin ondoren. Baldin 15/2006 Dekretuaren helburu bakarra inbentarioa egitea eta ACAEren izenean inskribatzea izan balitz, ziur asko ez zukeen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkari eskuordea izendatuko, likidatzaile profesional bat edo Ogasun Saileko funtzionario espezializatu bat baizik. Dekretuaren helburua, baina, langileak EAeko Administrazioa sartzeari edo kalte ordaina ematea ere bada. Prozesu horrek, ikusi ahal izan denez, luze jo du, bai Bizkaian, bai Araban, bai eta Gipuzkoan ere. Halaber, dekretuan Etxebizitza Sailak bere gain hartu dituen zenbait zerbitzu ere ezarri ditu, garrantzitsuak guztiak. Ikusi dugu, orobat, Ganbera ez dela automatikoki azkentzen, ezta gutxiago ere: Ganbera likidatzeko prozesu konplexua hasten da, bai Bizkaian bai eta gainerako lurraldeetan ere. Eta lehen aipatu dugu, halaber, ordezkari eskuorde izendatzen denak hartzen dituela bere gain ganberetako zuzendaritza organoen zereginak, zeregin guztiak, baita ondasunak eta langileak erabiltzeko, kudeatzeko eta administratzeko eginkizunak ere, 1994ko abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretuko Xedapen Iragankor Bakarrean ezarritako baldintzetan. Hala ezarri zen bi arauetan, hala ulertu zuten orduan bi sailek eta hala ulertu izan da betidanik. Eta, hain zuzen ere, 15/2006 Dekretuan bertan Ondare Zuzendariari berariaz agintzen zaizkio inbentarioa egiteko, ondarea zehazteko eta ACAEren izenean inskribatzeko zereginak (zeregin horiek 1. puntu honetan jaso dira, eginkizun bakar gisa). Hala eta guztiz ere, goian adierazi bezala, baldin Ganbera guztiz azkentzeko likidatze prozesua lau edo bost hilabetekoa izan balitz, askoz gastu txikiagoa egingo zen, eta ez hori bakarrik: behar gutxiago izango zen, eta ekimen gutxiago behar izango ziren, zerbitzu ona egiteko eta baldintzarik onenetan emateko. Hain zuzen ere, ikusi dugunez, hori ez da ordezkari eskuordearen esleipena bakarrik, betebeharra da. Aipatu da Henao kaleko higiezinaren etorkizunean zertarako erabiliko den ez zegoela erabakita, baina Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatu izan duen aldian ez da beste kokaleku posiblerik izan; ez Bizkaian, ez Araban, ez eta Gipuzkoan ere. Bizkaian, zehazki, Lurralde Ordezkaritzak On Diego Lopez Haroko kale nagusiko 85. zenbakian duen lokala guztiz beteta dago. Orduko langile zerrendako kide guztiak hartzeko ere ez zegoen leku nahikorik, Baliabide Orokorrek ezarritako ratioak betez. Ordezkarari eskuordearentzat askoz eroso eta errazagoa izango zen Ganberako langileak On Diego Lopez Haroko kale nagusiko 85. zenbakiko eraikinera eramatea, baina ezinezkoa zen. Eusko Jaurlaritzako sail eskudunari eskatu zitzaion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Lurralde Ordezkaritzarako leku gehiago lortzen saia zedila, bereziki SOS Deiak eta Euskadi Irratiaren egoitza lekualdatu zirenean, baina ezezkia eman



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

zigun. Horrez gain, esan zigun daukagunarekin moldatu behar genuela. Eta, hain zuzen ere, aukeretako bat Henao kaleko 9. zenbakiko lokala erabiltzea zen. Horren parez pare, Eusko Legebiltzarrak Adingabeen Legea onartu zuen, eta, horrekin batera, Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa sortu zen, eta kokaleku bat behar zuen, jakina. Aipatutako lokala egokitzeko obrak hasi ziren unean, Gizarte Gaietako sailburuordeak eskatu zidan proiektua molda nezala, lokal hartan Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa ere jar zedin (defendatzailearentzako bulegoa eta bost funtzionarioentzako lekua, zehazki). Lokala honela banatzea erabaki zen: lehen solairuan, Gizarte Zerbitzuen zerbitzuak, Defentsa Bulegoa, Berdindu zerbitzua eta Izatezko Bikoteen Erregistroaren Bizkaiko bulegoa; eta, behe solairuan, Etxebizitza Sailak bere gain hartutako Ganbera ohiaren zerbitzu guztiak, emantzipatzeko oinarrizko errentaren zerbitzua eta sortu berri zen etxebizitzaren ikuskatzaileentzako zerbitzua. Zerbitzu horiek guztiek ez zuten lekurik On Diego Lopez Haroko kale nagusiko 85. zenbakiko eraikinean, eta guztiz betetzen dute Bizkaiko Ganbera ohiaren egoitza nagusiko bi solairuetako eta sotoko espazioa. Eraikinak beste lau solairu ditu, eta bistakoa da Eusko Jaurlaritzak erabakiko duela, behar denean, zertarako erabiliko den higieztina etorkizunean, eta bere beharretara egokituko duela. Une hartan, baina, Eusko Jaurlaritzarekin adostutako erabilera azaldutako hori izan zen, eta erabilera horrek une hartako beharrak betetzen zituen. Lehen aipatu da zaharberritze lanak egin zirela lokalak egoera tamalgarrian zeudelako, lokala inauguratu zen unean (2008. urte amaieran) Ogasun Sailari eman zitzaion txostenean jasotako baldintzetan. Txosten hori honekin batera doa, eranskin gisa. Baina, gainera, aipatu behar da Ganbera, azkentze aldiaren baldin badago, ez dela Administrazio Publikoa eta, beraz, ez dagoela sektore publikoko kontratuak arautzen dituen legediaren eraginpean (dela 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, dela horren aurreko Legea). Ganberak, zuzenbide publikoko korporazio izateari uzten diotenean (esan behar dut lehenago ere, eta ez dakit zergatik, ez zeudela administrazioko kontratazioak arautzen dituzten printzipioen pean), ez dira kontratazio publikoak arautzen duten printzipioak eta moduak bete behar dituzten erakundeak, inolaz ere. 15/2006 Dekretuan ganberen azkentzea arautu da, eta ganberak likidatzeko, EAEko Administrazioa sartu nahi duten langileak hara sartzeko eta bestelakoetarako kudeaketak agintzen ditu; baina inolaz ere ez du ganberen izaera juridikoa aldatzen, harik eta ganberak behin betiko azkentzen diren arte. Ez dira Administrazio Publiko bihurtzen aipatutako dekretua indarrean sartzeagatik bakarrik. Hala ere, ordezkari eskuordeak obra edo hornikuntza kontratu garrantzitsu guztietan hiru eskaintza eskatu ditu, eta eskaintza onenari esleitu dio. Gainera, horren guztiaren berri jasota utzi du, behar bezala sinatutako ebazpenen bitartez. Atal honetako 3. eta 4. puntuei buruz esateko dudana gero azalduko dut. Bosgarren puntuari lotuta, ordezkari eskuordeak Ondare Zuzendaritzari eskatu zion inbentarioa egin zezala edo inbentarioa egiten lagun zezala. Zuzendaritza horrek, baina, erantzun zigun zituzten baliabideekin edo langileekin ez zutela denborarik izango Bilbora joan eta inbentarioa egiteko. Hala ere, geure baliabideekin egitea aurreikusi genuen, ahal zen neurrian, baina kargua utzi



zuen gobernuaren etenak eragotzi zigun. Likidazioa eta inbentarioa (15/2006 Dekretuak berariaz agintzen dio Ondare Zuzendaritzari), biak egiten ari ziren.

